

ENPARANTZA ETA PLAZA EZ DIRA GAUZA BERA.—Gure jarrera karismatikoak nora garamatzen igartzea ezta gauza erraza. Enpeinaturik gaude *Plaza = Enparantza* delakoan. Gainera, erdaraz euskaraz baino hobeto dakigunez, *enparantza* (jatorragotzat jotzen dugu, *amparar*-en kidetasunik aurkitu gabe. Ez dakit zerk ematen digun itsutasun hau, baina gure herriko leku-izenetan zaharrik baldin bada, *Plaza* dugu zaharrenetako bat. Erromatarren garaikoa noski, beraiek tokiz-toki jartzen zituzten herrixkak hala zirenez. Hor ditugu Gipuzkoan bertan Mendaron eta Eskoriatzan, bigarren hontan erromatarren aztarna ta guzi, *terra sigillata* zeramika bereziaren zati batzu aurkitu direnez. Bestalde, Erdi-arotik oso ezuguna da Bizkaiko Markinan Plaza torretxea, Berriatura bidean oraindik zutik dagoena. Bestalde, euskal deituretan ere sartua dago Plaza huts-hutsik eta baita Plazagoitia eta Plazaola bezala ere. Ezkiogan ordea, bada edo bazen Plazakotegi baserria, duela urte batzu bertakoek etakoei laguntza eman ziotelako eskubitarrek erre zutena hain zuzen .

Plaza, jatorriz, griegotik batador ere, guk latinaren bidez jasoia dugu.

Donostiako parte zaharrea, ez Antiguana, portuko hiri bilduan baizik, Plaza de la Constitución, XIX. mendean ideki zen, erreketaren ondoren, eta donostiar euskaldunek Plaza Berria deitu izan dute. Hiriko kaleen historiaz zerbait idatzi dutenek ere bai, besteak beste Serapio Mujika eta Agustín Anabitarteren idazlanak lekuko. Orain ordea, beren buruak abertzale eta euskaldun egin guran, *Konstituzioko Enparantza* jartzeaz enpeñatu dira. Holako iritzi kaxkarrez euskarari on egin beharrean kalte eginaz. Gainera, oroi, kale bat ere badela Donostian bertan Plazaburu izenekoa.

Enparantza aldiz, plaza ere izanen da, baina ez plaza ideki baten zentzu berean, defentsarako plaza hertsian baizik. Enpa-



rantzaren agiriak Azkue hiztegiak eskaintzen dizkigu. *Enparatu*-rekin badu zer ikusirik. Baina, Arakistain debarrarena zalan-tzaz jartzekoa da, erabiltzen duen era berean behintzat. Berak baino lehen erabili zutenena fidagarriagoa da. Esate baterako A. Marichalar eta C. Manrique-k *Historia de la Legislación y citas del Derecho Civil de España* (Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Alava), Madriden 1868.eko edizioaren 54. orrialdean zekarrenez: «A estos pusieron prudente remedio los reyes, nombrando cuatro jueces, que podemos llamar de *emparanzas*, con el cargo de reformar las fuerzas y agravios hechos por los reyes antecesores y sus gobernadores...» Horren xehetasunak Bonifazio Etxegaraik eman zizkigun *Eus-ker*a aldizkariko lan batean (ikus, «Algunas voces vascas usadas en el fuero general de Navarra», *Euskera*, VIII, 1927. urtekoa, 63-64 orrialdeetan): «*Emparanza* significa embargo, ejecución de bienes... Eta, «*emparar*, que vale tanto como embargar, secuestrar» eta kidekoak nola erabiltzen zituzten Aragoian eta Kataluñan.

Euskara jatortasunez eta esate aberatsez gorde nahi badugu, ez ote zaigu komeni Plazarentzat Plaza, bere era jatorrez erabil-tzea? Ala, *plaza-gizon* ordez *enparantz*a-gizon erabili behar ote dugu?

\* \* \*

PASAIAKO ANTXXO EZTA ZABAL.—Neurriz kanporakorik maiz egin da hizkuntzaz, baina *Pasajes Ancho* ezta A.B. dela-koak 1980ko abenduaren 7an *El Diario Vasco*-ren ohar batean, «Más frivolidades lingüísticas» izenburuz agertzen zuena, Pa-saia Zabal itzulpena emanaz. Ez.

Lekuizenez, *Antxo* zeritzan etxe batetik hartua du Pasaiako alderdi horrek bere izen orokorra. Gero, gaztelerako *Ancho* bezala jaso dena.



Argi dago pertsona izena zuela etxe harek, inoiz Anso eta maizago Sancho bezala agertzen den izen bera. Nafarroako arreegen garaitik era bat baino gehiagotara zabaldu zen gure erresumetan; baina, gaztelerazko *Ancho*-rekin zer ikusirik ga-bea.

\* \* \*

G. BORROW ETA T. ETXEBARRIA.—Gure mende honen lehen partean Eibarren egosten zen langileriarekiko gizarte-giroa interesgarria dugu gure historiako, bereziki euskaldun langileak sindikalista eta sozialista ekintzontan zer nolako jarrerak hartzen zituzten ezagutzeko. Giro hura ezagutzeko libururik hoberena Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* (México, 1968) deritzana dugu noski, naiz eta alderdi baten kidezatik begiraturik egon. Gerragatik herbestaturik, Caracas-en, bere bizitzako azken urteetan idatzia da. Liburu ona, baina memoria hutsez aritzeak berakin dituen xehetasunerako kalteak ere nabari ditu, horren ondoriz zenbait huts egitez. Horietako bat da hemen azaldu nahi duguna.

Esan beharra dago Toribioren Biblia zaletasuna ez dela zalantzan jartzekoa. Hori ongi erakutsi zigun eibartarrera zenbait zati itzultzean, *Ibilarixanak* (Zarautz, 1967) liburua lekuko. Baina, aipaturiko *Viaje por el país de los recuerdos* liburuaren 102. orrialdean dionez: «unos libritos de perra gorda que un día compré a George Borrow, de paso por Eibar, que si no sabía el caló de los gitanos hablaba un euskera de Goi-erri suave y enjundioso: eran los evangelios y los salmos». Puntu hontan, ez dago dudarik, hariak gurutzatu zitzaizkion gure Toribiori, zeren G. Borrow, *The Bible in Spain*-en egilea, Toribio jaio baino sei urte lehenago hila bai zen. Hau da, G. Borrow 1881ean hil zen eta T. Etxebarria 1887an jaio. Beraz, Borrow-ek euskara zerbait bazekien ere, eta hala zion Oteiza medikuari San Lukas Ebangelioa (1838) itzularazi ondorean



ber-berak egin zizkiola zuzenketak. Baina ez dugu uste Goierriko euskalkian hain egoki mintzatzeko zenik, ezta ere Eibartik igaro zenik. Behar bada, bere jarraitzaileen bat izango zen, Ebangelio Ekintzakoa, liburu hura Manuel Azañak espainolertzean, *La Biblia en España* (1921), atera zuen hotsaren eraginezko ondorioz.

Memoria hutsa lagur gelditzen da.

\* \* \*

ERMUA, HERRI-MUGA?—Igazko azaroan (*La Voz de Euskadi*-k 1983ko azaroaren 27an zekarrenez), Bizkaian, Ermuko Euskadiko Ezkerra talde politikokoek beren buletina kaleratu zuten *Herri Muga* izenburuz, eta honako argitasun hau emanez: «se ha especulado mucho en diversos trabajos sobre el origen toponímico del término Ermua y, entre los diversos vocablos que pudieron ser la base del mismo, sobresalen dos que gozan de una mayor aceptación: Ermua (lugar yermo, no cultivado) y Herri Muga (pueblo frontera). Sin pronunciarnos por uno o por otro, hemos decidido utilizar este último como cabecera de nuestro órgano de expresión local». Ederto! Bapo! Hastekota behin, erdaraz egiteko zergatik behar dute euskarazko tituludun buletina? Eta, izena hautatzeko orduan, euskaraz ez bada-kite, zergatik ez dute jo euskaldun normal batengana? Filologia edo linguistika ikasi beharrik ez zen hori erabaki dezakeen artean. Zentzuz jokatu behar den gauzetan ere «gozar de aceptación» ote arrazoizkoa? Karameluak edo koloreak hautatzen diren gisa, proposatu eta, beste gabe, hautatu.

«Pueblo frontera» izan balitz bere itzulpena, *muga-herri* zen eta ez alderantziz. Gainera, guti axola Euskal Herriko Ermua bakarra Bizkaiko hori izan balitz. Ez dakigu zergatik ez on har Eremu, latinezko *eremus*-tikakoa, oso argi eta oso zabaldua dagoen ezker.



Gainera, gure historian, muga, zerena? Izen hori ez al zen ba ezagutzen Bizkai-Gipuzkoen arteko muga jarri baino lehen?

Argi dago jokaera hori libertatearen zentzuzkoa izanen dela, baina ez giza zentzuzkoa. Azkenean, euskararen kaltean eta euskararen etsai holako buruarinak.

\* \* \*

**AZPIRI TXIKI, «CHIQUITO DE EIBAR» EN JATORRIZ.**— Eibarren, *eibartarra*, bertan jaioa edo bertako jatorrizkoa da; *Eibarkoa*, bertan bizi baina kanpotik etorria edo bertako jatorrikerik ez duena. Badakigu «Chiquito de Eibar» Durangon jaio zena, baina aita eta aitaren aldekoak jatorriz eibartarrak zirenez, bere burua eibartartzat zuen eta pelotari ospetsua egin zen neurrian Azpiri Txiki izateari utzi eta «Chiquito de Eibar» hartzen joan zen.

Berriki, Migel Pelay Orozkoren *Pelota, pelotari, frontón* liburu ederra irakurtzean, 67. orrialdean nindoala, harriturik gelditu naiz honako hau irakurtzean; «El Chiquito, que no era de Eibar, sino de Durango, había nacido en el caserío Azpiri, el día 22 de mayo de 1860». Baina, Azpiri baserrian ez zen jaio, Durangon ez dagoelako Azpiri izeneko baserririk, bai ordea Eibarren.

Pilotaren historietan zuzenketarik eginen bada edo ez, argitasun zenbait emango dut horri buruz. Horrenbeste merezi bai du horrelako pertsonaiak.

Eibarko baserrien agiriak ematean, Azpiri deritzanaren lehen aztarnak 1516. urtean agertzen dira. Gaur oraindik zutik dago baserri hori eta pertsonaia ospetsurik eman du, bai Azpiri deituraz eta bai Sarasketa-renaz. Eibarko Sarasketak ekaldetik etorriak ziren, baina aintzinatik eibartartuak. Horien adarrik



printzipalena Azpiri baserrian kokatu zena zen. Biktor Sarasqueta, gure mende honen hasieran hain ospetsu egingo zena tirora jokatzat eta bere izenez eskopeta fabrika eraikiz, eibartar zaharrentzat (gure gurasoentzat ez ezik, gure adinekoentzat ere) Bittor Azpiri zen, eta eskopeta lantegia bera ere Bittor Azpirinekotzat ezagutzen zen. Pilotariaren ahaidekoa bai zen, eta haren gurasoak bezala, Azpiri baserrian sortua. Pilotaria bera, izen-deituraz, Indalezio Sarasketa zen.

L. Bombín Fernández eta R. Bozas-Urrutiaren *El Gran libro de la Pelota* (1976) deritzan obraren lehen tomoko 731. orrialdean, honela jartzen du: «Indalecio Sarasqueta, llamado también «Azpiri», del nombre de la casería solar, y conocido vulgarmente por el «Chiquito de Eibar». Hitzez-hitz A. Peña y Goñi-ren *La pelota y los pelotaris* (1892) liburuko 139. orrialdetik hartua da. Luis Bombín-ek *Historia, ciencia y código del juego de la pelota* (1946) liburuko 43. orrialdean zerbait argiago zekarren, esanaz: «Nacido en Durango y vivió en el caserío de Azpiri, de Eibar». Baina, horrela irakurrita ere, nornahik pentsa lezake morroi egon zela Azpiri baserrian, baina aita zuen bertakoa. «Chiquito de Eibar»ek, ama zuen durangarra eta haurdun zelarrik, amaren etxera jo zuen haurgintza orduan. Hori da Durangon jaio behararen arrazoia, ama bertakoa izatea. Baina, jaiotza besterik ez zuen ezagutu Durangon. Eibarko kalean hazia zen eta bere aita Sarasketa «Azpiri» baserri izenez ezagutzen zelako, semea «Azpiri Txiki» bihurtu zen, eta hala ezagutu ere gure gurasoak.

Ojanguren fotografoaren aitaponteko izan zen eta hortik zetorkion Indalezio izena argazkilariari. Eta, adibideok, gurasoeri ez ezik Ojanguren zenari ere zor dizkiot.

J. S. M.